

Klimaren eta biodibertsitatearen krisia bereizezinak dira eta bie batera egin behar zaie aurre

Klima-aldaketak eta planeta osoko biodibertsitatearen galerak okerrera egiten jarraitzen dute, eta bi krisiak elkarren artean loturarik ez duten bi hondamendi desberdin balira bezala aztertzen dira askotan. Akatsa da hori, nazioarteko ikertzailetalde batek *Science* aldizkarian argitaratutako artikulu batean azaldu duenez. Ikuspegi hori aldatzeko eskatu dute artikulu horretan, biak guztiz lotuta daudelako eta bie batera aurre egin behar zaielako. Eta erakundeen arteko lankidetzak eskatu dute, krisi bikoitz horren atzean dauden egungo sistema ekonomiko eta politikoak lehenbailehen eraldatzeko.

planetako lurrazalaren % 75 eta itsasoko uren % 66 inguru aldarazi dute, ugaztunen biomasaren % 80 eta landare-biomasaren % 50 inguru galdu da, eta giza historiako beste edozein garaitan baino espezie gehiago daude galtzeko arriskuan". Eta Pascualek gaineratu duenez, "beroketa globalak eta habitat naturalen suntsipenak, biodibertsitatea ez ezik, organismoek, lurzoruek eta sedimentuek karbonoa biltegitzeko duten gaitasuna ere murrizten dute, eta krisi klimatikoa larriagotu".

"Ingurumen-krisi bikoitz honek begi-bistako eragina du dagoeneko gizartean, maila askotan, eta mundu



ARG.: Anita/Pixabay.

Lan horretan bi krisien arteko loturak argitu dituzte, baita bi hondamendiei aurre egiteko eta dagoeneko gizartean dituzten inpaktu izugarriak arintzeko soluzioak proposatu ere: adibidez, isurpenak murriztea, ekosistemak babestea eta lurzorua erabilerara modu adimentsuan kudeatzea.

Basque Centre for Climate Change (BC3) zentrok Unai Pascual ikertzailea da artikuluaren egileetako bat. Hark azaldu duenez, "giza jarduerak gure

osoan zaugarriak diren giza taldeen ekitatea eta egokitzeko gaitasuna okertu dute bereziki", dio Pascualek. "Klima-aldaketaren aurkako babesa eta biodibertsitatearen kontserbazioa batera jorratu behar dira, eta historikoki planeta hozten eta egungo biodibertsitate globala hein handi batean babesten lagundu duten tokiko komunitateei eta herri indigenei abantaila sozialak eskainiko dizkieten esku-hartze politikoak behar dira". ●